

EBA	BIE
Euskarazko Mezaren inguruan hausnarketa bat egiteko taldetxoaren lehenengo bilera Errege-egunaren ondoko lehenengo igandean, urtarrilak 9, egiteko asmoa dugu; mezaren ostean eta sakristian esango diguten gela batean. Lehenengo asmoa Euskarazko Meza erakargarriagoa egiteko geuk zer egin ahal dugun bilatzea bada ere, gaiari zuzenean lotu baino lehen batzar horretan zehaztu beharko dugu: 1. <u>Zer egin</u>: Nortzurentzat egin erakargarria? Talde txoaren kideontzat? Euskarazko Mezara gatozenontzat? Mezatarako etortzen diren euskaldunentzat? Euskaldunentzat? ... 2. <u>Nola egin</u>: Hasi lanean orain taldekide garenon artean eta gero erabakitakoa besteoi aurkeztu? Lanean hasi baino lehen taldea apur bat handiagoa egin? Zein tamainakoa izan arte? Nola trukatu informazioa taldekideen artean? ... 3. <u>Noiz egin</u>: Astero batuz? Hilean bi bider bilduz? Hilean behin elkartzuz? Zein egunetan? Zein ordutan? Zein iraupeneko batzarretan?... 4. <u>Non egin</u>: batuko garen tokia nolako ezaugarriak izan beharko lituzke? ... Kontu hauek guztiak zehaztu ondoren hasi gitezke denon artean osatu dugun hobetu daitezkeela uste ditugun kontuen zerrenda laburtzen edo luzatzen eta, behar izanez gero, hobeto zehazten. Gero, aukeratutako kontuak banan banan aztertzen joateko.	Euskerazko Mezaren inguruan hausnarketa bat egiteko talde txuaren lehenengo batzarra Errege-egunaren osteko lehenengo domekan, urtarrilak 9, egiteko asmoa dogu; mezaren ostean eta sakristian esango deuskuen gela baten. Lehenengo asmoa Euskerazko Meza erakargarriagoa egiteko geuk zer egin ahal dogun bilatzea bada bere, gaiari zuzenean lotu baino lehen batzar horretan zehaztu beharko dogu: 1. <u>Zer egin</u>: Nortzurentzat egin erakargarria? Talde txuaren kideontzat? Euskerazko Mezara gatozanontzat? Mezatarako etorten diran euskaldunentzat? Euskaldunentzat? ... 2. <u>Zelan egin</u>: Hasi beharrean orain taldekide garenon artean eta gero erabakitakoa besteoi aurkeztu? Beharrean hasi baino lehen taldea apur bat handiagoa egin? Zein tamainakoa izan arte? Zelan trukau informazioa taldekideen artean? ... 3. <u>Noiz egin</u>: Astero batuz? Hilean bi bider bilduz? Hilean behin alkartzuz? Zein egunetan? Zein ordutan? Zein iraupeneko batzarretan?... 4. <u>Non egin</u>: batuko garan tokia zelako ezaugarriak izan beharko leukez? ... Kontu honeek guztiak zehaztu ostean hasi geintekenez danon artean osatu dogun hobetu daitezkeela uste doguzan kontuen zerrenda laburtzen edo luzatzen eta, behar izan ezker, hobeto zehazten. Gero, aukeratutako kontuak banan banan aztertzen joateko.